

ZUMAIAKO XI. TXAKURKROSA ARAUTEGIA

Zumaiako Kirol Patronatuak izango da XI. Zumaiako txakurkrosa lasterketa antolatzailea.

1. DATA ETA LEKUA.

- XI. Zumaiako txakur lasterketa 2023ko urtarrilaren 29an egingo da.
- Irteera Victoriano Arrate Etorbidean izango da. Aitzuri pilotaleku aurrean. (ikusi probaren planoak)
- **Probaren xehetasunak:**

Distantzia: 8.300m

Ordutegia:

09:00 - 10:30: Albaitaritza kontrola eta dortsalak jasotzea

10:30 - Informazioa emateko bilera

11:00 - Lasterketaren hasiera.

12:00 - Lasterketa amaitzeko denbora muga.

12:00 – Haurren proba hasiera

12:15: Sailkapena argitaratzea

12:30: Sari banaketa

Araudiak zehaztutako edozein moldaketa dela medio (tenperatura altuagatik lasterketa laburtzea, etab.), lasterketaren hasierak eta amaitzeko mugak aldatzeko aukera izango da. Horrela bada guztia informazio bileran zehaztu eta jakinaraziko da.

2. IZEN EMATEAK ETA PREZIOA.

- Izen ematea abenduaren 26an zabalduko da eta urtarrilaren 26an itxiko da.
- Izena ematea www.kronoak.com webgunetik egingo dira.
- Federatuek 15€ ordainduko dituzte eta ez federatuek 18€.
- Urtarrilaren 26a ondoren ez dira bajak onartuko.

3. DORTSALA JASOTZEA.

Dortsalak proba egunean Victoriano Arrate Etorbidean (Aitzuri frontoiaren ondoan) banatuko dira. (09:00-10:30).

4. TXERTOAK.

- Korrikalariak bere txakurrak honako baldintzak betetzen dituela ziurtatu beharko du:
 - Adina: gutxienez 18 hilabete eta gehienez ere 10 urte.
 - Txertoak: urteko 3 txerto hauek jarrita izan beharko ditu derrigorrez:

- Antirabikoa.
- Bordetella brontxiseptikoaren aurrean (tos de las perreras), Penumodog edo Novivac KC motakoa.
- Balio anitzekoa (parvo virosis, leptospirosis, moquillo canino eta hepatitis txakurren aurrean, gutxienez).

Proba egin baino gutxienez 15 egun lehenago jarrita egotea gomendatzen da, "tos de las perreras"aren 1. Txertaketan izan ezik; kasu horretan, derrigorrezkoa izango da txerto hori proba egin baino gutxienez 21 egun lehenago izatea.

- Desparasitazioa: 2023ko lasterketan EZ da derrigorrezkoa izango, baina egitea gomendatzen dugu. 2024ko lasterketan honako hau eskatuko da: zestodo eta nematodoen aurkako desparasitazio sei hilero egitea derrigorrezkoa izango da eta hiru hilekoa egitea gomendatzen da. Hau txakurraren kartilan azaldu beharko da, albaitariak partehartzaileei eska baitiezaioke.

5. ASEGURUAK.

Probak ardura zibileko aseguru eta istripu aseguru izango ditu, baita probaren sorospen zaintza emango duen entitatea ere.

6. HAURREN LASTERKETA

- Helburua da hurrek txakurrekin korrika egitea zer den ezagutzea izango da, beste partaide eta txakurrekiko errespetua barneratuz.
- Haur bakoitzak heldu baten laguntza izan beharko du.
- Antolakuntzak txakurren bat lortzeko aukera izango duen arren, norberak bere kabuz txakurra lortzea gomendatzen da.
- Ibilbidea auzoko eraikinei buelta ematea izango da (Victoriano Arrate – Izaga kalea – Aitzuri kalea – Victoriano Arrate).
- Lasterketa: 1 € (gurasoen baimena eskatuko da eta heldu batek lagunduta joan beharko dute.).
- Izen ematea lasterketa egunean bertan egingo da.

7. SAILKAPENAK ETA SARIAK

- Emakumezko eta gizonezkoen sailkapen eta sari banaketa hauek izango dira.
- Sailkapenak:
 - GAZTEAK (14-17 urte) – 2006-2009 urteetan jaiotakoak.
 - NAGUSIAK (18-39 urte) - 1984-2005 urteetan jaiotakoak.
 - A BETERANOAK (40-49 urte) - 1974-1983 urteetan jaiotakoak.
 - B BETERANOAK (>50 urte) - 1973. urtean edo aurretik jaiotakoak.
- Sariak
 - 1º.-Garaikurra eta txapela
 - 2º.Garaikurra
 - 3-Garaikurra
 - Zumaia lehenengo neska eta mutila.
- Sariak ez dira pilatuko. Proba nagusia gailenduko da gainontzeko kategori guztietatik. Postua eta mailaren arabera izandako saria bakarrik jasoko dute korrikalariak.
- Korrikalari guztiek oparia izango dute.

8.- APARKALEKUA

Antolakuntzak irteera eremu ondoan dagoen Zumaia Herri Eskolako jolaslekua egokituko du honetarako.

Aparkalekuak honako ordutegi hau izango du:

Ireki: 2023-01-28 20:00

Itxi: 2023-01-29 17:30

9. GOMENDIOAK

- Antolakuntzak parte-hartzaile guztiei mediku-azterketa bat egitea gomendatzen die.
- Norberak bere gain hartu beharko du kirol jarduerak dakarren arriskua.
- Antolakuntzak saihestu egiten du parte-hartzaileek bere buruari edo beste hirugarren bati egiten diezaiokeen galera, kalte, edota lesioei buruzko erantzukizun oro.
- Parte-hartzaile guztiek, parte hartzeagatik, araudi hau onartzen dute. Bertan agertzen ez dena Euskadiko txakurkros ligarako onartutako arautegia arautuko du.

Zumaia Kirol Patronatua

Tlf.943-862021 email: info@lubaki.eus

www.zumaia.eus.

1. ERANSKINA



IBILBIDEA recorrido

Irteera: Aitzuri kalean

Txakurkrosa
2 buelta 8.300 m

 Aparkalekua
 Dutzak